


Txostena, Nafarroako Jauregiko hirugarren solairuko bilera-gelari izena jartzeko egin den barne-kontsultaren emaitzei buruzkoa

Jauregia birgaitzeko obren ondorioz espazio berriak sortu dira; besteak beste, hirugarren solairuko bilera-gela hori. Gelak oraindik ez du izenik. Jauregiaren beheko solairuan Joaquín Elizondo aretoa dagoenez, uste dugu bidezkoa dela hirugarren solairuko aretoak emakume nafar gailen baten izena izatea.

Planteatu da aretoaren izena Jauregian lan egiten duten langileen artean erabakitzea, boto bidez. Horretarako, Gobernu Irekiaren Atarian, “Parte hartu, Nafarroa” partaidetza plataforman, gune pribatu bat gaitu da, non soilik gonbidatutako langileak sartzen ahal baitira. Espazio horretan, aitzindariak izan ziren eta oso jarduera nabarmena izan zuten 7 emakume nafarren ibilbidea erakutsi da. Langile bakoitzak hautagai bakar baten aldeko botoa ematen ahal du.



Hauek izan ziren proposatutako hautagaiak:

1. Carmen Baroja Nesi (1883-1950)



Iruñean jaio zen. Nafarroako intelektuala, idazle eta etnologoa izan zen. Ekintzaile gisa, emakumeen Lyceum klubaren sortzaileetako bat izan zen, eta Zozo Zuria ganbera teatroaren sustatzailea. Idazle gisa, honako lan hauek nabarmentzen dira: *Recuerdos de una mujer de la generación del 98* [98ko belaunaldiko emakume baten oroitzapenak], *Tres Barojas*, *Poemas* [Hiru

2. Conchita Corera Oroz (1947-2014)



Aosen (Longida) jaio zen. Zientzia politikoetan eta soziologian lizentziatu zen. Herri kulturako zentroetan emakume helduak prestatzeko konpromisoa hartu zuen. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren sorrera bultzatu zuen, eta Soziologia eta Gizarte Laneko unibertsitate irakaslea izan zen. Nafarroako Soziologo eta Politologoaren Elkargo Ofizialak Gizartea eta Giza Balioak saria eman zion eskubide sozialen alde egindako borrokatik.

3. Emiliana Zubeldía Inda (1888-1987)



Jaitzen jaio zen. Konpositorea, irakaslea, pianista eta orkestra zuzendaria izan zen. Iruñean musika akademia bat sortu zuen, eta piano errezitak eta nazioarteko bira ugari egin zituen. Prentsa nazionalak horien berri eman zuen. Pianorako konposizioak argitaratu zituen, eta Parisen ikasi zuen.

4. Josefa Molera Mayo (1921-2011)



Izaban jaio zen. Nafarroako zientzialari bat izan zen, zinetika kimikoan eta kromatografiako teknika analitikoetan espezializatua. Gasen kromatografo bat eraiki zuen, agian lehena Espainian. Nazioarteko eta estatuko zenbait sari jaso zituen; besteak beste, CSICen Alfontso X.a Jakituna saria. Espainiako Fisikarien eta Kimikarien Elkartearen kimika domina jaso zuen.

5. Josefa eta Elisa Uriz Pi (1883/1893-1958/1979)



Badostainen eta Tafallan jaio ziren, hurrenez hurren. Bereziki nabarmendu ziren berrikuntza pedagogikoan, emakumearen eta hauren eskubideen aldeko borrokan (Elisaren ekimenez Haurren Nazioarteko Eguna ezarri zen) eta nazismoaren aurkako konpromisoan. Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoa bultzatu zuten. Balio demokratiko unibertsalen alde lan egin zuten bizitza osoan.

6. Julia Álvarez Resano (1903-1948)



Alesbesen jaio zen. Maisu-maistra eta Zuzenbide tituluak eskuratu ondoren, lehen postua lortu zuen 1923ko maisu-maistren oposizioetan. Alderdi Erradikal Sozialistan militatu zuen, eta, ondoren, Espainiako Langile Alderdi Sozialistan (PSOE). Espainian lehen emakumea izan zen gobernadore zibilarren karguan. Gobernadore zibila izan zen Ciudad Realen, eta diputatua Errepublikako

7. María Ana Sanz (1868-1936)



Irañetan (Arakil) jaio zen. Oso ezaguna da hezkuntzan eta gizarte ekintzan aitzindaria izan zelako. Eskola Normaleko zuzendaria izan zen, eta haren obra nagusia Maisu-maistren Eskola Normala izan zen. Bereziki aktiboa izan zen ongintzako lanetan, haur gaizkileen errehabilitazioan eta pertsona ahulentzako arreta berezian. Bokazio feminista nabarmena zabaldu zuen pedagogian eta irakasleen ikasketetan.

Joan den (hilaren) 23an, Nafarroako Jauregian aritzen diren enplegatu publikoei e-mail bat bidali zitzaieen prozesua eta online bozketan parte hartzeko modua azalduz. Era berean, eraikinean lan egiten duten laguntzaileekin harremanetan jarri ginen, besteak beste, garbiketako langileekin, eta prozesu honetan aurrez aurre parte hartzea eskaini gehien, Herritarren Partaidetzarako eta Boluntariotzarako Atalean zegoen boto-ontzian bozkatuz.

Botoa emateko prozesua maiatzaren 23tik 31ra arte egon zen irekita, bai aurrez aurre, bai online.

Epe horretan 66 boto jaso ziren; horietatik 54 online eman ziren eta 12 aurrez aurre, boto-paperekin bidez. Emaitza:

Hautagaiak	Boto kopurua
Josefa Molera Mayo	15
Conchita Corera Oroz	14
María Ana Sanz	11
Emiliana Zubeldía Inda	10
Josefa eta Elisa Uriz Pi	7
Carmen Baroja Nesi	5
Julia Álvarez Resano	4
BOTOAK, GUZTIRA	66

“Parte hartu, Nafarroa” plataformako kontsulta prozesuan azaltzen zen bezala, bozketaren emaitza loteslea izanen da boto gehien jaso duen hautagaiaren alde. Horregatik, proposatu da aipatu gelari **“Josefa Molera Mayo”** izena jartzea, hori baita boto gehien jaso duen hautagaia.

Mila esker kontsulta eta erabakirako jarduera honetan parte hartu duzuen guztioi.

Sinatua

Joseba Asiain Albisu

Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako
zuzendari nagusia (sinadura jatorrizko dokumentuan dago)